



***SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA
TURISMOA, S.A.***

***2024KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTU
IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE
DE 2024 JUNTO CON EL INFORME DE AUDITORÍA***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO
URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA-
TXOSTENA

SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA
TURISMOA, S.A. Sozietatearen akziodun bakarrari,
Donostiako Udaleko Kontuhartzaitzaren aginduz:

Iritzia

SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA
TURISMOA, S.A.ren (Sozietatea), urteko kontu
laburtuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek,
2024ko abenduaren 31ko balantze laburtuak, eta
aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-
irabazien kontu laburtuak eta memoria laburtuak osatzen
dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu laburtuek, alderdi
esanguratsu guztietan, Sozietateak 2024ko abenduaren
31n zuen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela
adierazten dute, eta baita aipatutako datan bukatutako
ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion
finantza-informazioaren araudi-esparruarekin bat etorritik
(memoria laburtuaren 2 oharrean adierazten dena), eta
bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta
arauekin bat etorritik.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-
ikuskaritza jardura erregulatzen duen araudiarekin bat
etorritik egin dugu. Arau horien arabera ditugun
erantzukizunak, aurrerago deskribatzen dira *Urteko
kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen
erantzukizunak* atalean.

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR
INDEPENDIENTE

Al Accionista Unico de SAN SEBASTIÁN TURISMO –
DONOSTIA TURISMOA S.A., por encargo de la
Intervención del Ayuntamiento de San Sebastián:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de SAN
SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA,
S.A. (la Sociedad), que comprenden el balance abreviado
a 31 de diciembre de 2024, la cuenta de pérdidas y
ganancias abreviadas y la memoria abreviada
correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas
adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la
imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de
la Sociedad a 31 de diciembre de 2024, así como de sus
resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha
fecha, de conformidad con el marco normativo de
información financiera que resulta de aplicación (que se
identifica en la nota 2 de la memoria abreviada) y, en
particular, con los principios y criterios contables
contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad
con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de
cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de
acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la
sección *Responsabilidades del auditor en relación con la
auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro
informe.



Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi honetako urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite materialak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, urteko kontuen gure ikuskaritzaren testuinguruan eta horiei buruzko gure iritzia osatzeko hartu dira kontuan, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Kontu-ikuskaritza aldaketa

Hau izan da gure lehen urtea Sozietatearen ikuskaritzan, eta, beraz, ikuskaritza modu efektiboan planifikatu dugula bermatzeko, (i) bilera antolatu dugu aurreko ikuskatzailearekin, haren laneko dokumentuak berraztertzeko; (ii) Sozietatearen kontabilitate-politikak eta iazko finantza-egoerak ebaluatu ditugu; (iii) Sozietatearen zuzendaritzarekin bilera egin dugu, kontrolaren ingurunea eta haren prozesuak ulertu ditugula ziurtatzeko; eta (iv) aurreko ikuskatzailearen laneko dokumentuak berraztertuta, ikuskaritza-laneko gure lehen urtearen hasieran irekiera-saldoak zenbatekoak ziren jakin

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Cambio de auditores

Éste ha sido nuestro primer año como auditores de la Sociedad, por lo que para asegurarnos de que hemos planificado nuestra auditoría de manera efectiva (i) hemos organizado una reunión con el auditor predecesor para revisar sus documentos de trabajo, (ii) hemos realizado la evaluación de las políticas contables de la Sociedad y de los estados financieros del año anterior, (iii) hemos mantenido una reunión con la dirección de la Sociedad para cerciorarnos de que hemos alcanzado un entendimiento del entorno de control de la misma y de sus procesos y (iv) como parte de nuestra revisión de los documentos de trabajo del auditor predecesor, hemos



dugu. Ondoren, gure ikuskaritza planifikatu dugu, amaierako saldoak jakiteko, lan hori kontuan hartuta.

Bestelako gaiak

2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Sozietatearen urteko kontu laburtuak beste kontu-ikuskatzaile batek ikuskatu zituen, 2024ko martxoaren 25ean hoiei buruzko aldeko iritzia adierazi zuelarik.

Administratzaileen erantzukizuna urteko kontu laburtuei dagokienez

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela adierazteko, Espainian sozietateari aplikatu behar zaion finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorritz, bai eta iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite materialik gabeko urteko kontuak prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolarekin bat etorritz ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak azalduz, eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak eteteko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean.

obtenido evidencia de los saldos de apertura al inicio de nuestro primer año como auditores. A continuación, hemos planificado nuestra auditoría para obtener evidencia de los saldos finales teniendo en cuenta este trabajo.

Otras cuestiones

Las cuentas anuales abreviadas de la Sociedad correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2023 fueron auditadas por otro auditor que expresó una opinión favorable sobre las mismas el 25 de marzo de 2024.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.



Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuak, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren jardura erregulatzen duen araudiaren arabera egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materializat hartuko dira, baldin eta, bai banaka zein modu bateratuan hartuta, erabiltzaileek urteko kontu laburtuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela aurreikus badaiteke.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzagatiko hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino handiagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales abreviadas.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas o la elusión del control interno.
- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos



diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituta, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko duen gaitasuna zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertakari edo baldintzekin lotutako ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean ohartarazi behar dugu urteko kontu laburtuetan honi buruz emandako informazioa edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con los administradores de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.



Erakundeko administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horietatik baitira garrantzitsuentzat joko ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Donostian, 2025eko apirilaren 1ean

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostia, a 1 de abril de 2025

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea /
Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador
(11.305 zenbakiarekin ROAC-ean inskribatuta /
Inscrito en el ROAC con el nº 11.305)

**SAN SEBASTIAN TURISMO S.A – DONOSTIA TURISMOA
S.A.**

**URTEKO KONTU LABURTUAK
2024KO ABENDUAREN 31N**

Urteko kontuak
2024ko abenduaren 31n

SAN SEBASTIAN TURISMO S.A. - DONOSTIA TURISMOA S.A.
2024 eta 2023ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE LABURTUA

AKTIBOA	Oharrak	2024/12/31	2023/12/31	PASIBOA	Oharrak	2024/12/31	2023/12/31
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		75.414,65	68.373,87	A) ONDARE GARBIA		589.946,37	742.097,30
I. Ibilgetu ukiezina.	5	8.737,15	16.603,92	A-1) Funts propioak.	10	103.693,91	97.290,08
II. Ibilgetu materiala.	6	45.203,83	28.976,28	I. Kapitala.		84.141,69	84.141,69
III. Epe luzerako inbertsio finantzarriak.	7.1	21.473,67	22.793,67	1. Kapital eskrituratuak.		84.141,69	84.141,69
B) AKTIBO ARRUNTA		1.454.636,93	1.712.892,09	VI. Galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenak.		3.105.165,49	3.236.336,38
II. Izakinak.	9	194.925,05	188.762,54	VII. Ekitaldiko emaitza.		-3.085.613,27	-3.223.187,99
III. Merkataritza zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.		772.598,60	887.320,41	A-3) Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak.	11	486.252,46	644.807,22
1. Salmenten eta zerbitzu prestazioen ondoriozko bezeroak	7.2	65.248,39	45.236,72	B) PASIBO EZ ARRUNTA	8.1	18.394,90	27.765,62
2. Bestelako zordunak.	7.2 eta 12.1	707.350,21	842.083,69	II. Epe luzerako zorrak.		18.394,90	27.765,62
V. Epe motzeko finantza-inbertsioak.	7.2	100,00	-	1. Epe luzerako bestelako zorrak.		18.394,90	27.765,62
VI. Epe laburrerako periodifikazioak.		45.257,92	23.329,24	C) PASIBO ARRUNTA		921.710,31	1.011.403,04
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak.		441.755,36	613.479,90	II. Epe laburrerako probisioak.	14	-	90.000,00
				III. Epe laburrerako zorrak.		6.357,22	20.888,70
				1. Kreditu erakundeekiko zorrak.	8.2	3.052,32	4.727,21
				3. Epe laburrerako bestelako zorrak.	8.2	3.304,90	16.161,49
				V. Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk.		627.454,17	745.332,49
				1. Hornitzaileak.	8.2	105.627,78	353.385,48
				2. Bestelako hartzekodunak.	8.2 eta 12.1	521.826,39	391.947,01
				VI. Epe laburrerako periodifikazioak.		287.898,92	155.181,85
AKTIBOA GUZTIRA		1.530.051,58	1.781.265,96	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		1.530.051,58	1.781.265,96



SAN SEBASTIAN TURISMO - DONOSTIA TURISMOA S.A.
GALDU IRABAZIEN KONTU LABURTUA
2024ko eta 2023ko ABENDUAREN 31n BUKATUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOKIENAK

	Oharra	2024/12/31	2023/12/31
ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia.	13.1	663.113,10	508.744,57
4. Hornidurak.	13.2	(22.274,90)	(125.481,82)
5. Beste ustiapen-sarrera batzuk.	11	171.068,12	234.511,64
6. Langile-gastuak.	13.3	(2.226.177,36)	(2.063.640,89)
7. Beste ustiapen-gastu batzuk.	13.4 eta 14	(1.676.487,43)	(1.760.509,92)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.	5 eta 6	(185.993,70)	(164.681,39)
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen eta beste batzuen egozpena.	11	185.643,72	164.093,88
13. Beste emaitza batzuk.		2.139,55	(16.224,06)
A) USTIAPEN EMAITZA		(3.088.968,90)	(3.223.187,99)
14. Finantza diru sarrerak.		3.363,45	-
b) Beste finantza diru sarrerak.		3.363,45	-
15. Finantza-gastuak.		(7,82)	-
B) EMAITZA FINANTZARIOA		3.355,63	-
C) ZERGA AURREKO EMAITZA		(3.085.613,27)	(3.223.187,99)
D) EKITALDIKO EMAITZA	3	(3.085.613,27)	(3.223.187,99)

SAN SEBASTIAN TURISMO S.A. - DONOSTIA TURISMOA S.A.

2024ko EKITALDIARI DAGOKION

MEMORIA LABURTUA

SAN SEBASTIAN TURISMO S.A. – DONOSTIA
TURISMOA S.A.

2024ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION MEMORIA

1.- SOZIETATEAREN JARDUERA.-

SAN SEBASTIAN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA S.A. sozietatea (aurrerantzean “Sozietatea edo TURISMOA”), sozietate anonimo bat da, eta, Sozietatearen estatutuen arabera, bere helburua “Donostiaren lurralde-esparruan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzea, garatzea eta indartzea” da.

Enpresaren egoitza soziala Donostiako Boulevardeko 8. zenbakian dago.

San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa S.A. enpresaren identifikazio fiskaleko zenbakia A-20188884 da.

Sozietatea Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1479 liburukian, 79 folioan, 9471 orrian.

Sozietateak, garatzen dituen jarduerak direla eta, ez du ingurumen-izaerako erantzukizun, gastu, aktibo, hornikuntza eta kontingentziarik, ondareari, finantza-egoerari eta horren emaitzei dagokienez esanguratsua izan daitekeenik. Ondorioz, urteko kontuen memoria honetan ez da sartu ingurumen-gaiei buruzko xehetasunik.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.-

2.1 Sozietateari aplikatu dakioken finantza-informazioko arau-esparrua.

Administratzaileek sozietateari aplikatu beharreko finantza-informazioko arau-esparruaren arabera formulatu dituzte urteko kontu horiek. Hona hemen esparru hori:

- a. Merkataritzako Kodea eta merkataritzako gainerako legeria.
- b. 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra, 602/2016 Errege Dekretuak eta 1/2021 Errege Dekretuak aldatu dutena, eta haren egokitzapen sektorialak.
- c. Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak onartutako nahitaez bete beharreko arauak.
- d. Espainiako gainerako kontabilitate-araudi aplikagarria.

2.2 Irudi zehatza

Honekin batera doazen urteko kontu laburtuak Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik atera dira, eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako eta 1159/2010 Errege Dekretuaren eta 602/2016 Errege Dekretuaren bidez aldatutako Kontabilitate Plan Orokorren eta kontabilitate-arloko derrigorrezko xedapenen arabera aurkeztu dira, eta, ondorioz, Sozietatearen ekitaldiko ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza ematen dute.

2023ko ekitaldiari zegozkion urteko kontuak 2024ko maiatzaren 30ko Sozietatearen Batzar Nagusiak onartu zituen.

2024ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak oraindik ez baditu ere onartu Akziodunen Batzar Nagusiak, Sozietatearen administratzaileek ez dute uste garrantzizko aldaketarik egingo denik onarpen horren ondorioz.

Ez dago aparteko arrazoirik, irudi fidela erakusteko, kontabilitatearen esparruko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

2.3 Derrigorrezkoak ez diren arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Honekin batera doazen urteko kontuak prestatzeko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -irizpideak Merkataritza Kodean, indarrean dagoen Kapital Sozietateen Legean eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean eta gerora egindako

aldaketetan jasotakoak dira. Urteko kontu laburtu hauek prestatzean ez da aplikatu derrigorrezkoa ez den eta eragin esanguratsua izan zezakeen printzipiorik.

2.4 Ziurgabetasunaren balorazioaren eta estimazioaren alderdi kritikoak

Sozietateak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioan oinarrituta prestatu ditu bere finantzen egoera-orriak, eta ez dago inolako arrisku esanguratsurik hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa nabarmenik izango dela pentsatzeko.

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion sozietatearen urteko kontu laburtuetan, batzuetan, sozietatearen administratzaileek egindako estimazioak erabili dira haietan erregistratutako aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoren bat baloratzeko. Funtsean, estimazio horiek aktibo jakin batzuen narriaduragatiko galerei eta aktibo materialen eta ukiezin bizitza baliaagarriari buruzkoak dira.

Kalkulu horiek urteko kontu laburtuak formulatzeko datan aztertutako gertakariei buruz zegoen informazio onenaren arabera egin ziren arren, litekeena da etorkizunean gerta daitezkeen gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartzea (gorantz edo beherantz); hori modu prospektiboan egingo litzateke, etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan zenbatespen-aldaketaren ondorioak aitortuz. Urteko kontu laburtu hauetan jasotako informazioa sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da.

2.5 Informazioa alderatzea

Merkataritzako legeriaren arabera, sozietatearen administratzaileek, konparazio-ondorioetarako, balantze laburtuaren eta galdu-irabazien kontu laburtuaren partida bakoitzarekin aurkezten dituzte, ixten den ekitaldiari dagozkion zifrez gain, aurreko ekitaldikoak. Halaber, 2024ko ekitaldiari buruzko memoria laburtu honetan jasotako informazioa 2023ko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, konparazio-ondorioetarako.

2.6 Urteko kontu laburtuak

Sozietateak betetzen ditu Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 257. eta 258. artikuluetan eskatutako baldintzak, eta, ondorioz, laburtuta aurkez ditzake balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiko aldaketen egoera-orria eta memoria.

2.7 Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Balantzeko eta galdu-irabazien kontuko kontu-sail jakin batzuk elkartuta aurkezten dira errazago uler daitezen, baina, adierazgarria den neurrian, informazioa banatuta sartu da memoriako dagokien oharretan.

2.8 Kontabilitate-irizpideen aldaketa

2024ko ekitaldian ez da kontabilitate-irizpideen aldaketa nabarmenik izan.

2.9 Moneta funtzionala

Urteko kontu hauek eurotan aurkeztu dira, euroa baita Sozietateren ingurune ekonomikoan erabiltzen den moneta.

2.10 Informazioaren erantzukizuna

Urteko kontu hauetako informazioa Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren erantzukizuna da.

2.11 Akatsen zuzenketa

Honekin batera doazen urteko kontuak prestatzean ez da hauteman 2023ko urteko kontuetako zenbatekoak doitzea eragin duen akats nabarmenik.

3.- EMAITZEN BANAKETA.-

Hau da administrariiek Sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeko aurkeztuko duten 2024ko ekitaldiko emaitzen banaketa-proposamena, eurotan adierazita:

Banaketa oinarria	2024	2023
Galdu-irabazien kontuko saldoa	(3.085.613,27)	(3.223.187,99)
Guztira	(3.085.613,27)	(3.223.187,99)

Aplikazioa	2024	2023
Aurreko ekitaldietako galeretara	(3.085.613,27)	(3.223.187,99)
Guztira	(3.085.613,27)	(3.223.187,99)

4.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK.-

Sozietateak 2024ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko erabilitako erregistro- eta balorazio-arau nagusiak, indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorrean eta indarrean dagoen merkataritzako gainerako legerian ezarritakoen arabera, honako hauek izan dira::

4.1 Ibilgetu ukiezina

Oro har, ibilgetu ukiezina eskuratze-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren arabera baloratzen da hasieran. Ondoren, dagokion amortizazio metatuak gutxitutako kostu-balioaren arabera baloratzen da, balio-bizitzaren arabera kalkulatuta, eta, hala badagokio, narriaduragatik aitortutako balio-zuzenketen zenbateko metatuaren arabera.

Aktibo ukiezinak balio-bizitza definituko aktiboak dira, eta, beraz, sistematikoki amortizatzen dira, haien balio-bizitza estimatuaren eta hondar-balioaren arabera. Aplikaturako amortizazio-metodoak eta -aldiak ekitaldi-itxiera bakoitzean berrikusten dira, eta, hala badagokio, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, narriadura-zantzuak dauden ebaluatzen da; kasu horretan, zenbateko berreskuragarriak zenbatesten dira, eta dagozkion balioespen-zuzenketak egiten dira.

Sozietateak ekitaldi bakoitzaren itxieran berrikusi ditu ibilgetu ukiezinaren hondar-balioa, balio-bizitza eta amortizazio-metodoa. Hasieran ezarritako irizpideen balizko aldaketak zenbatespen-aldaketa gisa onartzen dira.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak kontabilizatzeko irizpideak 4.3 oharrean deskribatzen dira.

4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala osatzen duten ondasunak erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira, dagokion amortizazio metatua eta narriadura dela eta izandako galerak kenduta. Kostuan, elementu bakoitza erostean ordaindutako prezioaz gainera, eraikuntza-aldian sortutako finantza-gastuak ere sartzen dira, aktiboen eraikuntzari zuzenean egotz dakizkiokeenak erabiltzeko moduan egoteko denbora bat behar badute. Azken ekitaldietan ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu honengatik.

Elementu osoak ordezkatzek edo berritzeak eta handitzeak, modernizazioek edo hobekuntzek eragindako gastuak, ondasunaren balio-bizitza,

produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa handitzen dutenak, ibilgetu materialaren balio handiago gisa kontabilizatzen dira, eta, ondorioz, ordeztutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Kontserbazio-, mantentze- eta konponketa-gastuak, aldizkakoak, horiek egiten diren urteko emaitzei kostu gisa egozten zaizkie, sortzapenaren irizpideari jarraituz.

Sozietateak ez du bere aktibo-ondasunei dagokien eraisteko, kentzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Hori dela eta aktiboetan ez da etorkizuneko betebeharrak horiek ordaintzeko baliorik kontabilizatu.

Aktibo bat besterentzearen edo erretiratzearen ondoriozko mozkina edo galera aktiboaren salmenta-irabaziaren eta liburu-zenbatekoaren arteko diferentzia gisa kalkulatu da, eta Emaitzen Kontuan aitortzen da.

Sozietateak bere ibilgetu materiala amortizatzen du, behin ustiapenean sartuta, metodo linealari jarraituz, eta eskuratzeko-kostua ken, hala badagokio, haren hondar-balioa kalkulatuak balio-bizitzaren urteen artean banatzen du, honako xehetasun hauen arabera:

	Zenbatetsitako bizitza baliagarriko urteak
Eraikuntzak	33
Instalazio teknikoak	5
Altzariak	10
Informazioa prozesatzeko ekipak	4
Beste instalazio batzuk	5
Beste ibilgetu material bat	6

Sozietateak ibilgetu materialaren balio-bizitza eta amortizazio-metodoa berrikusten ditu ekitaldi bakoitzaren itxieran. Hasiera batean ezarritako irizpideetan egindako aldaketak, hala badagokio, zenbatespen-aldaketa gisa onartzen dira.

Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskurapenak kontabilizatzeko irizpideak 4.3 oharrean deskribatzen dira.

4.3. Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-narriadura.

Sozietateak gutxienez ekitaldi bakoitzaren itxieran ebaluatzen du ea ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-narriaduraren zantzurik dagoen, aktibo horien balio berreskuragarria liburu-balioa baino zenbateko txikiagoan murrizten duenik. Zantzurik badago, aktiboaren balio berreskuragarria kalkulatu da, balio-narriaduragatik izan daitekeen galeraren irismena zehazteko. Ondorio horietarako, zenbateko berreskuragarritzat joko da arrazoizko balioa salmenta-kostuak eta erabilera-balioa kenduta ateratzen den zenbateko handiena. Ebidentzia hoberik ezean, eskudirua sortzen ez duen aktibo baten edo ustiapen- edo zerbitzu-unitate baten erabilera-balioa zehazteko, balio-galera duen birjartze-kostua hartuko da kontuan.

Diru-fluxuak sortzen dituzten aktiboaren narriadura-existentziaren ebaluazioa aktibo bakoitzerako egiten da, banaka hartuta. Hala ere, aktibo baten zerbitzu-potentzialaren identifikazioa, banaka hartuta, agerikoa ez denean, sozietateak zehazten du zein den dagokion ustiapen-unitatearen edo zerbitzuaren zenbateko berreskuragarria.

Aurreko ekitaldietan aktibo batean kontabilizatutako narriaduragatik galerak lehengoratu egiten dira zenbateko berreskuragarriaren gaineko zenbatespenetan aldaketaren bat gertatzen denean, aktiboaren balioa handituz, saneamendua egin izan ez balitz aktiboak izango zukeen liburu-balioaren mugarekin.

Sozietatearen administratzaileek uste dute beren ibilgetu ukiezinaren eta materialaren kontabilitate-balioak ez duela haien balio berreskuragarria gaintzen. Beraz, 2024ko ekitaldian Sozietateak ez du ibilgetuaren narriaduragatik galerarik erregistratu.

4.4. Alokairuak

Errentamendu operatiboa

ii. Sozietateak errentari gisa jarduten du

Errentamendu operatiboko akordioetatik eratorritako gastuak sortzen diren ekitaldian zordunduko dira galdu-irabazien kontura.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egin daitekeen edozein kobrantza edo ordainketa kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartuko da, eta errentamendu-aldian emaitzei egotziko zaie, errentan emandako aktiboaren etekinak laga edo jaso ahala.

4.5. Finantza-tresnak

4.5.1 Aktibo Finantzarioak

Sailkapena

Sozietateak dituen aktibo finantzarioak kategoria hauetan sailkatzen dira:

a. Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak: aktibo finantzarioak barne hartzen ditu, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartutakoak ere, zeinentzat sozietateak inbertsioari eusten dion kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak eragiten dituzte; diru-fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez dira.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira:

- i) Merkataritza-eragiketengatiko kredituak: ondasunen salmentan edo geroratutako kobrantzarekin trafiko-eragiketengatik zerbitzuak ematean sortutakoak, eta
 - ii) Merkataritzakoak ez diren eragiketengatiko kredituak: sozietateak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datoz, eta horien kobrantzak zenbateko jakinekoak edo determinagarriak dira.
- Hasierako balorazioa

Aktibo finantzarioak, oro har, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak gehituta erregistratzen dira hasieran. Hala ere, galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan erregistratutako aktiboei zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak.

Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, bai eta langileei emandako aurrerakinak eta kredituak, fidantzak eta ondare-tresnen gainean eskatutako ordainketak ere, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero baita, balio nominalaren arabera baloratuko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa

Sozietateak, gutxienez ekitaldi-itxieran, beharrezko balio-zuzenketak egiteko irizpideari jarraitzen dio, baldin eta ebidentzia objektiboa badago aktibo finantzario baten balioa narriatu egin dela hasierako kontabilizazioaren ondoren gertatutako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, baldin eta gertakari horiek etorkizuneko diru-fluxu estimatuak murriztea edo atzeratzea badakarte, eta horiek zordunaren

kaudimengabeziagatik gerta badaitezke. Kasu horretan, balio-narriaduragatiko galeraren zenbatekoa aktibo finantzarioaren liburu-balioaren eta etorkizuneko diru-fluxu zenbatetsien balio eguneratuaren arteko aldea da, hasierako kontabilizazioaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuta.

Narriadura

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta itzulketak, galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean, gastu edo sarrera gisa kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketak aktiboaren kontabilitate-balioa du mugatzat, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz lehengoratzeko-datan aitortuta egongo litzatekeena.

Sozietatearen administratzaileen ustez, aktiboen kontabilitate-balioak ez du haien balio berreskuragarria gainditzen, eta, beraz, 2024ko ekitaldian sozietateak ez du aktibo finantzarioen narriaduragatiko galerarik erregistratu.

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei dagokion aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko eskubideak amaitzen direnean edo utzi direnean eta bere jabetzari dagozkion arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia-arriskuak transmititu badira gertatzen dela ulertzen da.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak, gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatu den edozein zenbateko metaturen arteko diferentziak, aktibo horri baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori aktiboaren ekitaldiko emaitzaren parte da.

4.5.2 Pasibo finantzarioak,

Sozietateak bere gain hartutako edo egindako pasibo finantzarioak balorazio-kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a. Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak: sozietateak dituen zorrak eta ordaindu beharreko partidak dira, enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortutakoak, edo, jatorri komertziala izan gabe, tresna eratorriak izan gabe, sozietateak jasotako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak.

Pasibo horiek, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuen arabera doituta. Ondoren, pasibo horiek kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira.

Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatik zorrak eta jasotako fidantzak (horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da) balio nominalaren arabera baloratuko dira diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Aktiboak eta pasiboak bereiz aurkezten dira balantzean, eta beren zenbateko garbiarekin aurkezten dira soilik sozietateak zenbateko aitortuak konpentsatzeko eska daitezkeen eskubidea duenean eta, gainera, zenbatekoak likidatzeko asmoa dutenean edo aktiboa egiteko eta pasiboa aldi berean kitatzeko asmoa dutenean.

Sozietateak baja emango die pasibo finantzarioei, pasibo horiek sortu dituzten obligazioak azkentzen direnean.

4.6. Izakinak

Izakinak erosketa-prezioaren, ekoizpen-kostuaren edo balio garbi bihurgarri txikiaren arabera baloratzen dira. Kostuan sartuta daude FIFOra hurbiltzen den kostu estandarren arabera baloratutako materialak, hirugarrenekin egindako lanak eta zuzenean produktuari egotz dakizkiokeen kostuak, bai eta produktuei zeharka egotz dakizkiokeen kostuei dagokien arrazoizko zatia ere.

Balio bihurgarri garbia salmentako prezioaren estimazioa da, bukatzeko estimatutako kostu guztiak eta merkaturatzeko, salmentako eta banaketako prozesuetan egingo diren kostuak kenduta.

4.7. Atzerriko monetako transakzioak

Atzerriko monetan hartutako eta kitatu gabeko zordunen, hartzekodunen, bezeroen eta hornitzaileen saldoak eurotan kontabilizatzen ditu kontrabalioak, ekitaldiaren itxierako kotizazioaren arabera, nola eta, garrantzi erlatiboaren printzipioaren arabera, ez duen merezi kontabilitateko balioa aldatzea, edo truke-asegurua dagoen.

Kontrabalioa eurotan ondarean sartzeko unean. Eragiketa likidatzen den eguneko kostu erreala aplikatzen da.

Positiboak badira, zorra kitatzen ez den bitartean, 768 Kontuan jasotzen da (Truke Alde Positiboak).

Negatiboak badira, zorra kitatzen ez den bitartean, 668 Kontuan jasotzen da (Truke Alde Negatiboak).

4.8. Sozietateen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren gastuan edo sarreran sartzen da, alde batetik, zerga korrontearen ondoriozko gastuari edo sarrerari dagokion zatia eta, bestetik, gastu edo sarrera geroratuari dagokiona.

Zerga korrontea Sozietateak ekitaldi bateko mozkinen gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaintzen duen kopurua da. Zergaren kuotako dedukzioek eta beste abantaila fiskal batzuek, atxikipenak eta konturako ordainketak kenduta, eta aurreko ekitaldietakoak diren eta berez ekitaldi honetan aplikatu diren galera fiskal konpentsagarriek zerga korrontea jaistea eragiten dute.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo sarrera zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak aitortzeari eta kitatzeari dagozkie. Hemen sartzen dira etorkizunean ordain edo berreskura daitezkeen zenbateko gisa definitutako denbora-diferentziak, eta aktiboek eta pasiboek liburuetan duten balioaren eta beren zerga-oinarriaren arteko diferentziak, bai eta konpentsatzeko dauden zerga ezargarri negatiboak eta ikuspegi fiskaletik aplikatu gabeko zerga-kenkarien ondoriozko kredituak ere. Zenbateko horiek denbora-diferentziari edo dagokion kredituari aktibo eta pasibo horiek berreskuratzeko edo likidatzeko aurreikusten den karga-tasa aplikatuz erregistratzen dira.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortzen dira zergapeko denbora-diferentzia guztietarako, salbuesten dira merkataritza-funts baten hasierako aitorpenetik edo ez zerga-emaiztan ez kontabilitatean ondoriorik izan ez duen eragiketa batean beste aktibo edo pasibo batzuen hasierako aitorpenetik eratorritakoak, eta negozio-konbinazio ez direnak; bai eta mendeko enpresa, elkartu eta negozio bateratuetako inbertsioei atxikitakoak ere Sozietateak kontrolatu dezakeenean noiz itzuliko diren eta posible denean aurreikus daitezkeen etorkizunean ez itzultzea.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak bakar-bakarrik aitortuko dira posible denean Sozietateak etorkizunean horiek gauzatu ahal izateko behar adina zerga-irabazi izatea.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetako zuzeneko kargu- edo ordainketa-eragiketek eragindakoak, ondare garbiko kontrapartida gisa kontabilizatzen dira. Kontabilitatea ixten den bakoitzean berriz kontsideratzen dira erregistratutako zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, eta dagozkion zuzenketak egiten zaizkie etorkizunean

berreskuratzeari buruz zalantzak dauden neurrian. Kontabilitatea ixten den bakoitzean balantzean erregistratu gabeko zerga geroratuen ondoriozko aktiboak ebaluatzen dira, eta irabaziekin berreskuratuko direla posible den neurrian aitortzen dira.

4.9 Sarreraren eta gastuen kontabilizazioa

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasunen eta zerbitzuen egiazko mugimendua gertatzen denean, horien ondoriozko moneta-korronteak edo finantza-korronteak edozein unetan gertatzen direlarik ere. Sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, deskontuak eta zergak kenduta.

Salmenten ondoriozko sarrerak saldutako ondasunaren berezko arrisku eta irabazi nagusiak erosleari eskualdatzen zaizkionean aitortzen dira, ondasun horren gaineko gestio korrontea mantendu gabe eta ondasunaren gaineko egiazko kontrola atxiki gabe, eta eragiketa horiei ezartzen zaizkien zergei dagozkien zenbatekoak sartu gabe; eragiketaren balio txikiago gisa hartzen dira deskontu guztiak, fakturan sartuta egon ala ez.

Zerbitzuak eskaintzearen ondoriozko sarrerei dagokienez, balantzearen datan prestazioa zenbateraino dagoen eginda kontuan hartuta aitortzen dira, eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez kalkula badaiteke bakarrik.

Aktibo finantzarioetatik jasotako interesak interes efektiboaren metodoa eta dibidenduak erabiliz aitortzen dira, horiek jasotzeko akziodunaren eskubidea aitortzen denean. Nolanahi ere, eskuratu ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak eta dibidenduak sarrera gisa aitortzen dira galdu-irabazien kontuan.

4.10 Hornidurak eta kontingentziak

Uneko auzi, erreklamazio, abal, berme, kalte-ordain eta obligazioetatik eratorritako edozein eratako erantzukizun posibleak edo ziurrak, oraindik zenbatekoa zehaztu gabe dutenak, ekitaldiko emaitzen kaltetan hornitzen dira, bere zenbatekoaren kalkularen arabera.

4.11. Kaleratzeagatiko kalte-ordainak

Indarrean dagoen lan-legediaren arabera, Espainiako erakundeek kalte-ordaina eman behar diete arrazoirik gabe kaleratzen diren langileei. Ez dago kontzeptu honengatik hornidura bat kontabilizatzeko arrazoi objektiborik.

4.12. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Ingurumen-izaerako aktibotzat jotzen dira sozietatearen jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak. Ondasun horien helburu nagusia da ingurumen-inpaktua minimizatzea eta ingurumena babestea eta hobetzea, etorkizuneko kutsadura murriztea edo ezabatzea barne.

Sozietatearen jarduerak, bere izaeragatik, ez du eragin nabarmenik ingurumenean.

4.13. Pentsio eta antzekoetarako hornidurak

Enpresako langileen kontratu- edo lege-betebeharrei erantzuteko behar diren funtsak, erretiroa edo behar sozialak -alarguntasuna, umezurztasuna, eta abar-direla eta, kalkulu aktuariaren arabera egindako estimazioak kontuan hartuta kontabilizatuko dira.

4.14 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Honakoak dira diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak kontabilizatzeko erabilitako irizpideak:

- a. Itzuli behar ez diren diru-laguntza, dohaintza eta legatuak: Emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, dirua izan ala ez, eta emaitzetan egozten dira, diruz lagundutako elementuei buruz aldi horretan egindako amortizazioaren horniduraren proportzioan, edo, dagokionean, besterentzea edo narriaduragatik zuzenketa baloratiboa egiten denean, bazkideengandik edo jabeengandik jasotakoak direnean izan ezik, horiek zuzenean funts propioetan erregistratzen baitira eta ez sarrera gisa.
- b. Itzultzeko diru-laguntzak: Itzultzeko diru-laguntzen izaera dutenean pasibo gisa kontabilizatzen dira.
- c. Ustiapenerako diru-laguntzak: Emaitzetara ordaintzen dira ematen diren unean, etorkizuneko ekitaldiko ustiapen defizita finantzatzera bideratzen direnean izan ezik, orduan ekitaldi horietan egotziko baitira. Gastu jakin batzuk finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastu horiek sortu ahala egotziko dira.

Bestalde, bazkideengandik edo jabeengandik jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak ez dira sarrerak, eta zuzenean funts propioetan erregistratu behar dira baldin eta itzultzekoak ez badira.

4.15. Loturadun alderdien arteko transakzioak

Balorazio-arau horrek loturadun alderdiei eragiten die, eta Kontabilitate Plan Orokorreko 13. urteko kontuak egiteko arauan zehazten dira. Zentzu horretan:

- a) Enpresa edo erakunde bat taldeko partaide dela ulertuko da bien artean kontrol-harremana dagoenean, zuzena nahiz zeharkakoa izan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan sozietate-taldeentzat aurreikusitakoaren antzerakoa, hain zuzen ere, edo enpresak edozein bitarteko dela medio pertsona juridiko batek edo batera diharduten pertsona juridiko batzuek kontrolatzen dituztenean, edo akordioak edo estatutu-klausulak direla medio zuzendaritza bakarraren mende daudenean.
- b) Enpresa bat elkartekidetzat joko da, taldeko enpresa bat izan gabe ere, enpresa edo pertsona fisiko nagusiek enpresa elkartu horretan eragin esanguratsua dutenean, Kontabilitate Plan Orokorren 11. urteko kontuak egiteko arauan zehatz-mehatz garatzen den bezala.
- c) Alderdi bat beste bati lotuta dagoela ulertuko da haietako batek, zuzenean edo zeharka, edo akziodunen edo partaideen arteko itun edo akordioen bidez, beste alderdi baten gaineko kontrola gauzatzen duenean edo beste alderdi horren finantza- eta ustiapen-erabakiak hartzerakoan eragin esanguratsua duenean.
Sozietateari lotutako alderditzat hartzen dira, taldeko enpresez, elkartuez eta talde anitzekoez gain, zuzenean edo zeharka Sozietatearen boto-eskubideetan edo eskubide nagusiaren gainean partaidetzaren bat duten pertsona fisikoak, bataren edo bestearen gainean eragin esanguratsua izateko, bai eta hurbileko senideak ere, Sozietatearen edo haren nagusiaren funtsezko langileak (zuzenean edo zeharka enpresaren jardueren plangintzan, zuzendaritzan eta kontrolean agintea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak). Horien artean sartzen dira administratzaileak eta zuzendariak, haien gertuko senideekin batera, bai eta arestian aipatutako pertsonak eragin esanguratsua izan dezaketen erakundeak ere. Era berean, loturadun alderditzat hartuko dira sozietatearekin kontseilariren bat edo zuzendaritzako kideren bat partekatzen duten enpresak, salbu eta kontseilari edo zuzendari horrek ez badu eragin esanguratsurik bien finantza- eta ustiapen-politiketan, eta, hala badagokio, sozietatearen administratzailearen ordezkariaren (pertsona fisikoa) hurbileko senideak, hura pertsona juridikoa denean.

Ildo horretan, taldeko enpresatzat hartuko da Donostiako Udala.

4.16. Partida arruntak eta ez-arruntak

Aktibo korrientetzat hartzen dira ustiapen-ziklo arruntari lotutakoak, oro har

urtebetekoak direnak, baita mugaeguna, inorenganatzea edo gauzatzea ekitaldiaren itxiera-datatik epe laburrean gertatzea espero den beste aktibo batzuk, negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak, likidazio-epea urtebetetik gorakoa duten deribatu finantzarioak eta eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak izan ezik. Baldintza horiek betetzen ez dituzten aktiboak ez-korrientetzat jotzen dira.

Era berean, ustiapen-ziklo arruntari lotutakoak pasibo korrienteak dira negoziatzeko mantendutako pasibo finantzarioak, salbu eta urtebetetik gorako likidazio-epea duten deribatu finantzarioak eta, oro har, epe laburrean mugaeguneratuko edo azkenduko diren betebeharrak. Bestela, ez-arrunt gisa sailkatzen dira.

5.- IBILGETU UKIEZINA.-

Honako hau izan da 2024ko eta 2023ko ekitaldietan egoera-balantzearen epigrafe honetan izandako mugimendua, eurotan adierazita:

2024ko ekitaldia:

Kostua	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	351.742,14	43.560,00	-	395.302,14
Guztira	351.742,14	43.560,00	-	395.302,14

Amortizazioa	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	(335.138,22)	(51.426,77)	-	(386.564,99)
Guztira	(335.138,22)	(51.426,77)	-	(386.564,99)

ibilgetu ukiezina guztira	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	351.742,14	395.302,14
Amortizazioa	(335.138,22)	(386.564,99)
Guztizko garbia	16.603,92	8.737,15

2024an ez da narriadurarik izan ibilgetu ukiezinen kontu-sail bakar batean, ez da eragin esanguratsurik izan oraingo ekitaldian edo geroko ekitaldietan.

Sozietateak ez du balio-bizitza zehaztu gabeko ibilgetu ukiezinik.

Sozietateak ez du ibilgetu ukiezinako ondasunen balioespen-zuzenketarik egin.

2023ko ekitaldia:

Kostua	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	353.637,14		(1.895,00)	351.742,14
Guztira	353.637,14		(1.895,00)	351.742,14

Amortizazioa	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Informatika aplikazioak	(318.051,50)	(17.086,72)	-	(335.138,22)
Guztira	(318.051,50)	(17.086,72)	-	(335.138,22)

Ibilgetu ukiezina guztira	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	353.637,14	351.742,14
Amortizazioa	(318.051,50)	(335.138,22)
Guztizko garbia	35.585,64	16.603,92

2023an ez da narriadurarik izan ibilgetu ukiezinen kontu-sail bakar batean, ez da eragin esanguratsurik izan oraingo ekitaldian edo geroko ekitaldietan ezta.

Sozietateak ez du balio-bizitza zehaztu gabeko ibilgetu ukiezinik.

Sozietateak ez du ibilgetu ukiezinako ondasunen balioespen-zuzenketarik egin

Erabat amortizatutako aktiboen guztizko zenbatekoa honako hau da

	Kontabilitate-balioa (Gordina)	
	2024	2023
Aplikazio informatikoak	366.033,93	316.471,48
Total	366.033,93	316.471,48

6.- IBILGETU MATERIALA.-

2024ko eta 2023ko ekitaldietako ibilgetu materialaren eta dagozkion amortizazio metatuen kontuetan honako mugimendu hau izan da, eurotan adierazita:

2024ko ekitaldia:

Kostua	Hasierako saldoa	Sarrerak	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	627.969,80	-	627.969,80
Instalazio teknikoak	174.673,10	-	174.673,10
Altzariak	117.162,06	10.966,24	128.128,30
Informazio-prozesuetako ekipoak	179.953,29	19.985,87	199.939,16
Bestelako instalazioak	151.019,36	119.842,37	270.861,73
Bestelako Ibilgetu materiala:	70.379,89	-	70.379,89
Kostua guztira	1.321.157,5	150.794,48	1.471.951,98

Amortizazioak	Hasierako saldoa	Hornidurak	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	(626.576,09)	(54,48)	(626.630,57)
Instalazio teknikoak	(173.950,85)	(722,25)	(174.673,10)
Altzariak	(116.638,82)	(599,97)	(117.238,79)
Informazio-prozesuetako ekipoak	(163.665,73)	(10.726,06)	(163.665,73)
Bestelako instalazioak	(146.872,61)	(120.901,13)	(146.872,61)
Bestelako Ibilgetu materiala	(64.477,12)	(1.563,04)	(64.477,12)
Kostua guztira	(1.292.181,22)	(134.566,93)	(1.426.748,15)

Ibilgetu materiala guztira	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	1.321.157,50	1.471.951,98
Amortizazioak	(1.292.181,22)	(1.426.748,15)
Gutzizko garbia	28.976,28	45.203,83

2023ko ekitaldia:

Kostua	Hasierako saldoa	Sarrerak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	627.969,80	-	-	627.969,80
Instalazio teknikoak	174.673,10	-	-	174.673,10
Altzariak	117.162,06	-	-	117.162,06
Informazio-prozesuetako ekipoa	178.058,29	-	1.895,00	179.953,29
Bestelako instalazioak	68.801,41	82.217,95	-	151.019,36
Bestelako Ibilgetu materiala:	18.301,49	52.078,40	-	70.379,89
Kostua guztira	1.184.966,15	134.296,35	1.895,00	1.321.157,50

Amortizazioak	Hasierako saldoa	Hornidurak	Igoerak edo gutxitzeak eskualdatzeengatik	Amaierako saldoa
Lursailak eta eraikuntzak	(626.521,61)	(54,48)	-	(626.576,09)
Instalazio teknikoak	(173.210,60)	(740,25)	-	(173.950,85)
Altzariak	(116.004,91)	(633,91)	-	(116.638,82)
Informazio-prozesuetako ekipoa	(155.861,29)	(7.804,44)	-	(163.665,73)
Bestelako instalazioak	(63.595,9)	(83.276,71)	-	(146.872,61)
Bestelako Ibilgetu materiala:	(9.392,24)	(55.084,88)	-	(64.477,12)
Kostua guztira	(1.144.586,55)	(147.594,67)	-	(1.292.181,22)

Ibilgetu ukiezina guztira	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa
Kostua	1.184.966,15	1.321.157,50
Amortizazioak	(1.144.586,55)	(1.292.181,22)
Narriadurak	-	-
Guztizko garbia	40.379,60	28.976,28

Erabat amortizatutako aktiboen guztizko zenbatekoa honako hau da:

	Kontabilitate-balioa (Gordina)	
	2024	2023
Eraikuntzak	626.154,80	626.154,80
Instalazio teknikoak	174.673,10	167.262,33
Altzariak	117.162,06	110.947,54
Informazio-prozesuetako ekipoak	152.703,06	149.197,69
Bestelako instalazioak	264.509,23	144.666,86
Bestelako ibilgetu materiala	62.167,38	55.589,82
Guztira	1.397.369,63	1.253.819,04

7.- FINANTZA AKTIBOAK.-

7.1 Finantza-aktiboak epe luzera

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-aktiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe luzeko honako saldo hauek mantentzen ditu 2024ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak	Finantza-tresnak epe luzera			
	Kredituak, eratorriak eta bestelakoak		Guztira	
	2024	2023	2024	2023
Kostu amortizatuko finantza-aktiboak	21.473,67	22.793,67	21.473,67	22.793,67
Guztira	21.473,67	22.793,67	21.473,67	22.793,67

Epe luzera amortizatutako kostuko finantza-aktiboen saldoak 18.433,67 euroko balioarekin emandako fidantzei dagozkie, eta langile bati emandako etxebizitzarako kreditu bati, 3.040 euroko eta 4.360,00 euroko balioarekin, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

7.2. Finantza-aktiboak epe laburrera

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-aktiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe laburreko honako saldo hauek mantentzen ditu 2024ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak			Finantza-tresnak epe laburrera			
			Kredituak, eratorriak eta bestelakoak		Guztira	
Kategoriak			2024	2023	2024	2023
Kostu amortizatuko	finantza-	aktiboak	82.916,48	46.446,72	82.916,48	46.446,72
Guztira			82.916,48	46.446,72	82.916,48	46.446,72

2024ko eta 2023ko ekitaldietan epe motzera amortizatutako kostuko finantza-aktiboek dagozkien saldoek salmentengatik eta zerbitzuak emateagatik bezeroek kobratzeko dituzten zenbatekoak erakusten dituzte. Langileentzako epe laburreko kredituen zenbatekoa ere jasotzen dute: 1.210 euro bi ekitaldietan.

8.- FINANTZA PASIBOAK.-

8.1. Finantza-pasiboak epe luzera

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-pasiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe luzeko honako saldo hauek mantentzen ditu 2024ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak			Finantza-tresnak epe luzera			
			Eratorkiak eta bestelakoak		Guztira	
Kategoriak			2024	2023	2024	2023
Kostu amortizatuko pasiboak	finantza		18.394,90	27.765,62	18.394,90	27.765,62
Guztira			18.394,90	27.765,62	18.394,90	27.765,62

Epe luzera amortizatutako kostuko pasibo finantzarioen epigrafean 18.394,90 euroko saldoa jasotzen da, eta 27.765,62 eurokoa 2024ko eta 2023ko ekitaldian, jasotako fidantzengatik.

8.2. Finantza-pasiboak epe laburrera

KPOk erregistro- eta balorazio-arauetan finantza-pasiboentzat ezarritako sailkapenaren arabera, Sozietateak epe laburreko honako saldo hauek mantentzen ditu 2024ko ekitaldia ixtean (eurotan adierazita):

Motak	Epe laburreko finantza-tresnak					
	Zorrek kreditu-erakundeekin eta finantza-errentamendua		Eratorkiak eta bestelakoak		Guztira	
	2024	2023	2024	2023	2024	2023
Kostu amortizatuko finantza-pasiboak	3.052,32	4.727,21	454.813,30	596.315,20	457.865,62	601.042,41
Guztira	3.052,32	4.727,21	454.813,31	596.315,20	457.865,63	601.042,41

Epe motzera amortizatutako mozketarako pasibo finantzarioen epigrafean, kreditu-erakundeekiko zorretan dago VISAk ordaintzeko duen zenbatekoa, 2024an eta 2023an, 3.052,32 eurokoa eta 4.727,21 eurokoa.

Kategoria berean, deribatuetan eta bestelakoetan, 3.304,90 euroak jasotako fiantzengatik, eta hornitzaileei eta hartzekodunei ondasunak erosteagatik eta zerbitzuak emateagatik ordaintzeko dagoen zenbatekoa dago gehienbat.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen xedapen gehigarrietako hirugarrenaren arabera eman beharreko informazioari dagokionez, Legea indarrean jarri zenetik egindako lehenengo urteko kontu hauetan, 2024ko abenduaren 31n, ez dago hornitzaileei ordaindu gabe dagoen eta ordaintzeko legezko epea gainditu duen geroratzea duen saldorik.

Saldo hori hornitzaileei nahiz hartzekodun komertzialei eta ordaindu beharreko bestelako kontuei dagokie.

Merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriei buruzko 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, aldatzen duen 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, arabera Sozietateari aplikagarri zaion ordaintzeko legezko gehieneko epea 60 egunekoa da salgaia jasotzen den edo zerbitzua ematen den egunetik zenbatzen hasita.

8.3. Finantza-pasiboen mugaegunen taula

Finantza-pasiboen mugaegunaren araberrako sailkapena honako taula honetan zehaztuta dago:

	Mugaeguna urteetan		
	1	2	TOTAL
Zorrak	6.357,22	18.394,90	24.752,12
Zorrak kreditu-erakundeekin	3.052,32	-	3.052,32
Bestelako finantza-pasiboak	3.304,90	18.394,90	21.699,80
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	451.508,40	-	451.508,41
Hornitzaileak	105.627,78	-	105.627,78
Hainbat hartzekodun	345.880,62	-	345.880,62
Guztira	457.865,62	18.394,90	476.260,52

8.4. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa.

	2024	2023
	egunak	egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	16,77	29,47

ICACen ebazpenaren arabera, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean sortutako ondasunak entregatzeari edo zerbitzuak emateari dagozkion merkataritza-eragiketak hartu dira kontuan.

9.- IZAKINAK.

Sozietatearen izakinen zenbatekoa honela osatuta dago:

	2024	2023
Informatikarako alfonbrak	795,60	-
Basquecards	9.942,00	20.182,00
Bolígrafoak	9,00	86,00
Poltsak	26.028,00	21.226,00
Botilatxoak	2.181,00	2.149,00
Kamisetak	1.395,00	1.185,00
Zirak	6.210,00	775,00
Kredentzioletarako zintak	776,00	-
Kredentzialak	431,00	14,00
Koadernoak	328,00	420,00
Mantalak	1.192,00	2.661,00
Beherapenak	13.914,00	23.060,00
Flyers	2.739,00	1.017,00
Zorroak	2.886,00	1.059,00
Buruko txapelak	919,00	1.115,00
Gidaliburuak	20.258,00	30.123,00
Imanak	2.058,00	3,00
Irudi-orriak	2,00	3,00
Libretak	7,00	7,00
Liburuak	3.436,00	850,00
Maillots	3.390,00	4.474,00
Eskuko liburuxkak	1.380,00	1.380,00
Mapak	20.313,00	28.014,00
Libururako markaitzailea	2,00	2,00
Muxukoak	60,00	60,00
Aterkiak	12.558,00	13.294,00
Pendriva	1.762,00	1.789,00
Postalak	181,00	302,00
Posterrak	113,00	-
Egitarauak	3.515,00	-
Sscardak	46.224,00	25.439,00
Kirol-jertseak	2.953,00	607,00
TOTAL	187.957,00	181.296,00

Sozietateak ez du inolako narriadurarik izan izakinetan, ez 2024ko ekitaldian, ez 2023koan.

Horrez gain, hornitzaileentzako aurrerakina 6.968,05 eurokoa izan zen 2024an, eta 7.466,54 eurokoa 2023an.

10.- FUNTS PROPIOAK.-

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan atxikitako balantze laburtuaren epigrafe honetan sartutako kontuetan izandako mugimenduak honako hauek izan dira:

Mugimenduak	Kapital eskrituratuta	Bazkideen bestelako aportazioak	Ekitaldiko emaitza	Guztira
2022eko ekitaldiko azken saldoa	84.141,69	2.942.379,13	(2.856.042,75)	170.478,07
2023ko ekitaldiko hasierako saldoa	84.141,69	2.942.379,13	(2.856.042,75)	170.478,07
Gehikuntzak	-	3.150.000,00	(3.223.187,99)	(73.187,99)
Transferentziak	-	(2.856.042,75)	2.856.042,75	-
2023ko ekitaldiko azken saldoa	84.141,69	3.236.336,38	(3.223.187,99)	97.290,08
2024ko ekitaldiko hasierako saldoa	84.141,69	3.236.336,8	(3.223.187,99)	97.290,08
Gehikuntzak	-	3.092.017,10	(3.085.613,27)	6.403,83
Transferentziak	-	(3.223.187,99)	3.223.187,99	-
2024ko ekitaldiko azken saldoa	84.141,69	3.105.165,49	(3.085.613,27)	103.693,91

10.1. Harpidetutako kapitala.

Izenpetutako kapitala

2024 eta 2023 ekitaldia ixtean Sozietatearen kapital soziala 84.141,69 eurokoa da. Sozietatearen kapital soziala 20.000 akzio nominalek osatzen dute, 4,207984 eurokoa bakoitza, guztiak akziodun bakarrak, Donostiako Udalak, izenpetuak eta ordainduak; kide bakarreko sozietatea da, beraz.

Murrizketarik gabeko akzio-mota bakarra dago, eta enpresak ez du akzio propiorik.

10.2 Legezko erreserba

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren arabera, sozietateek, zergak ordaindu ondoren, mozkinen % 10 bideratu behar dute legezko erreserba eratzeraz, honek izenpetutako kapitalaren % 20 gutxienez lortu arte. Legezko erreserba hau ezin zaie akziodunei banatu eta, erabiltzeko beste erreserbarik izan ezean, galdu-irabazien kontuko saldo zordunari erantzuteko bakarrik erabili ahal izango da. Baldintza jakin batzuetan kapital soziala gehitzeko ere erabili ahal izango da. Legezko erreserbaren zenbatekoa zero eurokoa da.

11.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK.-

2024ko ekitaldian, sozietateari ez diote kapitaleko dirulaguntzarik eman. Jarraian, erantsitako balantze laburtuaren epigrafe honetan 2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan izandako mugimenduak:

Balantzean jasotako eta bazkide ez diren hirugarrenek emandako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		
MUGIMENDUAK	2024	2023
SALDOA EKITALDIAREN HASIERAN	644.807,22	808.901,10
(+) Ekitaldian jasotakoak	30.952,11	-
(-) Ekitaldiaren emaitzetara pasatutako diru-laguntzak	(185.643,72)	(164.093,88)
(+/-) Bestelako mugimenduak (pasiboen aldaketa zerga geroratuagatik)	(3.863,15)	-
SALDOA EKITALDIAREN AMAIERAN	486.252,46	644.807,22
DIRU-LAGUNTZA BIHUR DAITEZKEEN EPE LUZERAKO ZORRAK	-	-

2024 eta 2023ko ekitaldian Sozietateari ustiapenerako emandako diru-laguntzak guztira 146.230,80 eta 222.733,22 eurokoak izan dira.

12.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA EGOERA FISKALA.-

2024 eta 2023ko abenduaren 31n honako hau da administrazio publikoekiko egoera:

12.1 Administrazio publikoekiko saldo korranteak

a. Zordun saldoak

	2024	2023
Ogasun Publikoa, zorduna emandako dirulaguntzengatik	689.113,40	840.803,66
Gizarte Segurantzako erakundeak, zordunak	70,03	70,03
Ogasuna Publikoa, atxikipenak eta konturako ordainketak	598,69	-
Guztira	689.782,12	840.873,69

b. Hartzekodun saldoak

	2024	2023
Ogasun Publikoa, BEZaren hartzekoduna	(29.990,31)	(29.840,42)
Ogasun Publikoa, atxikipenen hartzekoduna	(93.822,45)	(93.752,33)
Gizarte Segurantzako erakundeak, hartzekodunak	(52.133,01)	(41.586,03)
Guztira	(175.945,77)	(165.178,78)

12.2 Kontabilitateko emaitza eta sozietateen gaineko zergaren gastua bateratzea

Izandako galeren ondorioz, sozietateak ez du inolako gasturik sortu zerga horri dagokionez.

12.3 Erregistratutako zerga geroratuaren aktiboak

Sozietateak ez du inolako zenbatekorik zerga geroratuaren aktiboaren partidetan, ez 2024ko ekitaldian, ez 2023koan. Izan ere, sozietatearen administratzaileek uste dute, sozietatearen etorkizuneko emaitzei buruzko estimazio hobearen arabera, zerga-plangintzako jarduketa jakin batzuk barne, ezinezkoa dela aktibo horiek berreskuratzea.

12.4. Ez erregistratutako zerga geroratuaren aktiboak.

Hauxe da haien detailea:

	Mila eurotan	
	2024	2023
Zerga-oinarri negatiboak	34.738.204,77	31.553.348,78
Egiteke dauden kenkariak eta bestelakoak	31.529,60	28.402,25
Erregistratu gabeko zerga geroratuaren aktiboak, guztira	34.769.734,37	31.581.751,03

2024ko eta 2023ko ekitaldia ixtean, erantsitako egoera-balantzean erregistratu gabe zeuden zerga-oinarri negatiboaren eta hartzeko dauden kenkariaren epemuga honako hau zen:

	2024		2023	
	Mila eurotan	Epemuga	Mila eurotan	Epemuga
Zerga-oinarri negatiboak:				
2003	27.303,06	2033	27.303,06	2033
2008	1.767.175,04	2038	1.767.175,04	2038
2009	1.703.939,89	2039	1.703.939,89	2039
2010	1.558.399,26	2040	1.558.399,26	2040
2011	1.608.500,29	2041	1.608.500,29	2041
2012	1.458.012,41	2042	1.458.012,41	2042
2013	1.622.057,52	2043	1.622.057,52	2043
2014	1.589.224,09	2044	1.589.224,09	2044
2015	1.747.297,67	2045	1.747.297,67	2045
2016	2.379.014,09	2046	2.379.014,09	2046
2017	2.342.891,44	2047	2.342.891,44	2047
2018	2.648.502,91	2048	2.648.502,91	2048
2019	2.754.135,55	2049	2.754.135,55	2049
2020	2.696.277,42	2050	2.696.277,42	2050
2021	2.820.038,27	2051	2.820.038,27	2051
2022	2.830.579,88	2052	2.830.579,88	2052
2023	3.184.855,99	2053		
Egiteke dauden kenkariak eta bestelakoak:				
2006	472,74	2036	472,74	2036
2011	135,00	2041	135,00	2041
2012	126,00	2042	126,00	2042
2013	695,85	2043	695,85	2043
2014	6.394,65	2044	6.394,65	2044
2015	147,60	2045	147,60	2045
2016	11.081,27	2046	11.081,27	2046
2017	3.907,47	2047	3.907,47	2047
2018	3.346,58	2048	3.346,58	2048
2019	811,36	2049	811,36	2049
2020	267,77	2050	267,77	2050
2021	462,98	2051	462,98	2051
2022	552,98	2052	552,98	2052
2023	3.127,35	2053		
	34.769.734,37		31.581.751,03	

12.5. Egiaztatzeke dauden ariketak eta ikuskapen-jarduerak.

Indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztutako aitortpenak agintari fiskalek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte.

Sozietatearen administratzaileek uste dute behar bezala egin direla zerga horien likidazioak, eta, beraz, eragiketei emandako zerga-tratamenduagatik indarrean dagoen araudiaren interpretazioan desadostasunak sortzen badira ere, ondoriozko balizko pasiboek, gauzatuz gero, ez lukete eragin nabarmenik izango erantsitako urteko kontuetan.

13.- SARRERAK ETA GASTUAK.-

13.1. Negozio-zifraren banaketa

Hau da negozio-zifraren zenbatekoa eta aurreko urteko negozio-zifrarekiko alderaketa:

	2024	2023
Negozio-zifraren zenbateko garbia	663.113,10	508.744,57

13.2. Hornikuntzak

Honekin batera doan 2024ko eta 2023ko ekitaldietako galdu-irabazien kontuko "Hornikuntzak" epigrafea honela osatuta dago (eurotan adierazita):

	2024	2023
Salgaien kontsumoa	28.935,90	50.734,14
Izakinen aldaketa	(6.661,00)	74.747,68
Guztira	22.274,90	125.481,82

13.3. Pertsonala.

Honekin batera doan 2024ko eta 2023ko ekitaldietako galdu-irabazien kontuko "Langile-gastuak" epigrafean sartutako karga sozialen osaketa honako hau da (eurotan adierazita):

	2024	2023
Soldatak eta lansariak	1.634.842,94	1.518.753,73
Kalte-ordainak	6.962,02	6.688,93
Sozial kargak	584.372,40	538.198,23
Gizarte segurantza enpresaren kontura	530.224,29	490.879,99
Pentsio-planetarako ekarpenak eta bestelako karga sozialak	54.148,11	47.318,24
Total	2.226.177,36	2.063.640,89

13.4 Bestelako ustiapen-gastuak

2024ko eta 2023ko ekitaldietako "Bestelako ustiapen-gastuak" epigrafearen xehetasuna.

	2024	2023
Errentamenduak eta kanonak	216.551,68	350.399,15
Konponketak eta kontserbazioa	203.484,21	213.773,60
Profesional independenteen zerbitzuak	284.556,64	347.066,26
Aseguruak	16.529,69	8.417,74
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	6.405,19	3.743,54
Publizitatea eta propaganda	598.632,97	501.950,31
Bestelako hornigaiak	13.576,90	17.741,67
Bestelako zerbitzuak	426.750,15	317.417,65
Beste merkataritza-eragiketa batzuetarako hornidurarako zuzkidura	(90.000)	-
Guztira	1.676.487,43	1.760.509,92

14.-HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK,-

Hasierako saldoa	Hornidurak	Aplikazioak	Amaierako saldoa
90.000	-	90.000	-

2022ko ekitaldian 90.000 euroko hornidura erregistratu da, PRODUCTIONS SYSTEMS S.A.S enpresaren erreklamazioaren ondorioz. Erreklamazio horrek kalte-ordaina eskatzen du << Wigrum>> iturri tipografikoa lizentziarik gabe erabiltzeagatik, iturri horren ustiapen-eskubideak baititu. 2024ko ekitaldia ixtean, PRODUCTIONS SYSTEMS S.A.S. enpresak aipatutako iturri tipografikoa erabiltzeagatik egindako faktura erregistratu da. Hori dela eta, lehen adierazitako zenbatekoa deshornitzeari ekin zaio.

15.- ELKARRI LOTUTAKO ALDEEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK.-

Donostiako Udalak 3.128.627,88 euroko ekarpenak egin dizkio Sozietateari 2024ko ekitaldian.

16.- BESTELAKO INFORMAZIOA.-

a) Batez besteko errolda eta langile-gastuak

2024ko ekitaldiko batez besteko enplegatu-kopurua, kategoriatan banatuta, honako hau izan da:

	2024	2023
Ekitaldiko batez besteko errolda	35,61	34,25
Mugagabeko lan-kontratudun errolda ekitaldiaren amaieran	26	17

Administratzaileak ez dira egon, ez modu pertsonalean ez horiei lotutako pertsonen jardueraren ondorioz, gobernu korporatiboa hobetzeko abenduaren 3ko 31/2014 Legearen bidez aldatutako Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren 228. artikulutik 231. artikulura bitartean aipatzen diren Sozietatearen interes-gatazka egoeratan.

Administratzaileek ez dute bere kontura edo besteren kontura garatzen Sozietatearen xede sozialaren jardura bera, antzekoa edo osagarria, eta ez dute Sozietatearen xede sozialaren jardura bera, antzekoa edo osagarria garatzen duten beste sozietate batzuetako kapital sozialean partaidetzarik.

Sozietateko administrazio-organoei ez zaie inolako ordainsaririk, ez pizgarri finkorik edo aldizkakorik eman.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideei eta zuzendariei ez zaie aurrerakinik eta krediturik ere eman.

Sozietateak ez du berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubiderik.

Azpian izenpetzen dutenek, Sozietate honen administratzaile gisa, adierazten dute Sozietatearen urteko kontu hauei dagokien kontabilitatean ez dagoela 2012ko urriaren 8ko Justizia Ministerioaren Aginduan aurreikusitako ingurumen-informazioari buruzko aparteko dokumentuan sartu behar den kontu-sailik.

Kontu-ikuskatzaileak emandako enpresa-zerbitzuen kontzeptuengatik 2024an sortutako ordainsaria 8.050,00 eurokoa izan da.

Memoria hau Administrazio Kontseiluak aurkeztu du 2024ko martxoaren 31ko bileran.

17.- ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK.-

Ekitaldia itxi ondoren eta urteko kontuak onartu arte ez da gertatu 2024ko abenduaren 31ko Sozietatearen finantza-egoerak nabarmen alda zitzakeen gertaerarik.



Eneko Goia Jon Insausti Jon Markel Ormazabal Miren Albistur Garmendia Iñigo García Villanueva Borja Corominas Victor José Lasa Pilar Pascual Jesús Santamaría Laura Larrión Nerea Aramburu Raúl Fernandez



**AITORPEN NEGATIBOA INGURUMEN-INFORMAZIOAREN INGURUAN
URTEKO KONTUETAN
DECLARACIÓN NEGATIVA ACERCA DE LA INFORMACIÓN MEDIOAMBIENTAL
EN LAS CUENTAS ANUALES**

SOZIEATEAREN IDENTIFIKAZIOA:
SAN SEBASTIAN TURISMO S.A. -
DONOSTIA TURISMOA S.A. IFZ:
A-20188884

IDENTIFICACIÓN DE LA SOCIEDAD:
SAN SEBASTIAN TURISMO S.A. -
DONOSTIA TURISMOA S.A.: NIF: A-
20188884

Hemen behean izenpetzen dutenek, aipatutako Sozietateako administrazio-kontseiluko kide diren aldetik, honako hau adierazten dute:

Los abajo firmantes, como Administradores de la Sociedad citada, manifiestan que:

Urteko kontuen kontabilitateari dagokionez, Kontabilitateko Plan Orokorreko hirugarren ataleko oharrei jarraiki (2007ko azaroaren 16ko, 1514/2007 Errege Dekretua) **EZ** dago jaso beharreko ingurumen izaerako kontu-sailik.

En la contabilidad correspondiente a las presentes cuentas anuales **NO** existe ninguna partida de naturaleza medioambiental que deba ser incluida de acuerdo a las indicaciones de la tercera parte del Plan General de Contabilidad (Real Decreto 1514/2007 de 16 de Noviembre).

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUKO KIDEEEN IZEN ETA IZENPEAK:

FIRMAS Y NOMBRES DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN:



Eneko Goia



Jon Insausti



Jon Markel Ormazabal



Miren Albistur Garmendia



Iñigo García Villanueva



Borja Corominas



Victor José Lasa




Pilar Pascual



Jesús Santamaría



Laura Larrión



Nerea Aramburu



Raúl Fernández